

EEBBetan eztabaida politiko handia piztu da armen inguruan

Urtero-urtero, bost milioi lagun joaten dira arma azoketara

Agentziak / Washington

EEBBetako Legebiltzarrean suzko armen salmenta murrizteko zenbait neurri eztabaidatzen ari dira. Hain zuzen ere, administrazioa arma azoketako erosleen histo-

rial kriminala aztertzea behartuko duen lege ekimena eztabaidatzen ari da. Asteazkenean bozkatu zuten proposamen hori Senatuan, eta errepublikanoen botoei esker atzera bota zuten. Hala ere, berriro aurkeztu dute proposamena.

DENVERKO sarraskiaren ondoren —Columbineko eskolan gertatua—, armen salmentari eta jabetzari buruzko eztabaida piztu zen EEBBetako gizartean, eta arlo politikoan ere isla izaten ari da debate hori.


Hain zuzen ere, armen kontrola zertxobait murrizteko lege ekimen bat ari dira eztabaidatzen Senatuan. Eki-men horrek arma azoketako erosleen historial kriminala aztertzea proposatzen du, eta horren arabera erabakitzea arma saldu edo ez.

EEBBetan 5.000 arma azoka inguru egiten dira urtean, eta bost bat milioi lagun joaten dira. Lege hutsune bat dela medio, azoka horietan armak eros daitezke historial kriminala azaltzera behartzen duen legea saihestuz. Aitzitik, denda normaletan ezin dute armarik saldu erosleak historial kriminal garbia duela frogatu gabe.

Clintonen eskaria

Asteazkenean eztabaidatu zuten aurreneko aldiz proposamen hori EEBBetako Senatuan, eta bozketan atzera bota zuten. 57 senadorek bozkatu zuten lege ekimenaren aurka, eta 41ek alde. Eki-menaren aurka bozkatu zuten ia senadore gutiak errepublikanoak ziren.

Nolanahi ere, proposamena berriro aurkeztu eta berriro bozkatuko dute. Bill Clinton EEBBetako lehendakari



Denverko sarraskian hildako 13 lagunen omenezko ekitaldia. Triskantza horrek piztu du armei buruzko eztabaida.

demokratak eskari argia egin die gai horren inguruan Alderdi Errepublikano senadoreei: hankasartze bera bi bider ez egiteko. «Batasun nazionala behar da momentu honetan, zatiketak ezabatze-ko momentua da», nabarmendu zuen.

Lege ekimen horren xedea heriotzak eragozteko dela nabarmendu zuen Clintonek, eta horrexegatik, bigarren aukeran alde bozkateko eskatu zien senadore guztiei.

«Ez dut ulertzen nola utzi zuten pasatzen bizitzak salbatzeko aukera hori», adierazi zuen lehendakariak aurreneko bozketari buruz.

EEBBetako arma industriak indar handia dauka, eta batik bat, Alderdi Errepublikanoan eragin handia duen lobby-a osatzen du. Nolanahi ere, iritzi publikoan arma salmenta eta jabetza murriztearen aldeko jarrera hedatzen ari da, eta horrek alda ditzake gauzak.

l a b u r r e a n

K A N P U T X E A

■ Erailketa eta tortura leporatu diote 'Duch'-i, Khmer Gorrien buruzagi ohiari

KHMER GORRIEN segurtasun arduradun ohi Kang Kek Ieu Duch erailketaz eta torturaz akusatu dute Kanputxeako iturri judizialek atzo jakinarazi zuten. Khmer Gorriak agintean izan ziren herrialde horretan 1975etik 1979ra bitartean, eta indarrean jarri zuten erregimen gogorraren ondorioz, ia bi milioi lagun hil ziren. Besteak beste, Duch 14.000 exekuzioren arduradun izan zela uste da. Khmer Gorrien buruzagi ohi hori martxoan atxilotu zuten, eta auzipetuko duten talde horretako bigarren buruzagia da. Besteari ere, Ta Mok Harakina-ri, delitu larriak leporatzen dizkiote. Hala ere, Ta Mok Khmer Gorrietako kide izan zen atxilotu arte, eta Duchek, berriz, talde hori utzia zuen eta kristautasunera bihurtu zen.

I R A K - N B E

■ Erasoak gerarazteko eskatu die Irakeko Atzerri ministroak Nazio Batuei

EEBBek eta Erresuma Batuak aldiro-aldiro Irak bonbardatzen segitzen dute. Egoera hori gaitzesteko eta erasoak gerarazteko eskatu dio Mohamed Said Sahaf irakeko Atzerri ministroak Nazio Batuen Erakundeari (NBE). Hain zuzen ere, Said Sahafek gutuna igorri die Kofi Annan NBEko idazkari nagusiari eta Segurtasun Kontseiluko arduraduneri erasoak geraraz ditzaten. Sahafek emandako azalepenen arabera, apirilaren 30ean Irak iparraldeko eremu bat bonbardatu zuten EEBBek, «inolako jomuga militarrik ez dagoen inguru bat», eta sei artzain hil zituzten. Halaber, bonbardaketak sistematikoak direla eta irakiarrek kokiltzeko tresna direla nabarmendu zuen.

K O N G O K O E R R E P U B L I K A

■ Hamabost pertsona exekutatu dituzte

ARMADAKO pelotoi berezi batek hamabost pertsona fusilatu zituen ostegunean Kinshasan, Kongoko Errepublika Demokratikoko hiriburuan, herrialde horretako irati nazionalak atzo jakinarazi zuenez. Hala ere, ez dute argitu nortzuk diren exekutatuak, ezta zein delitirengatik zigortu zituzten ere. Kongoko Errepublikako legediaren arabera, arlo zibilean, hilketen eta arma bidezko lapurreten egileei ezartzen zaie heriotza zigorra. Arlo militarrean, berriz, desertoreei eta agintarien kontra oldartzen direnei ezartzen diete heriotza zigorra.

T U N I S I A

■ Sindikalistak galdekatu dituzte

TUNISIAKO sindikatuko ofizial UGTT-ko hamabi kide gidekatu ditu poliziak eta gero aske utzi. UGTTko 12 kide horiek sindikatu barruko oposizioa dira, eta orain gutxi, buruzagiak izendatzeko sistemaren aurka agiri bat plazaratu zuten. Iturri ofizialek emandako azalpenen arabera, «errebeldia» ekintza horregatik galdekatu zituzten astelehenean, eta gero, asteartean, beren etxetara itzultzen utzi zieten guztiei.